

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Hainbat dirulaguntza emateko modua arautzen duten oinarrien aldaketen behin betiko onarpena

Ondoren zehazten diren oinarri arautzaileak apirilaren 12ko 45 zenbakidun ALHAOn jarri ziren jendaurrean, eta ez da alegaziorik edo erreklamaziorik egon:

- Hizkuntzak ikasteko dirulaguntzak emateko oinarriak.
- Herri tradizioak berreskuratzeko jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko oinarriak.
- Musika, arte dramatiko eta dantza ikasketak egiteko dirulaguntzak emateko oinarriak.
- Eskola garraiorako dirulaguntzak emateko oinarriak.
- Federatutako kirolari ez profesionalek kirol jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko oinarriak.

Behin betiko onartutzat jo dira, ondoren zehazten den bezala:

HIZKUNTZAK IKASTEKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK

1. artikulua: arrazoiak

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren ustez, hizkuntzak ikasteak garrantzia handia du pertsonen formazioan, lan-esparruan eta esparru akademiko eta pertsonalean aurrera egin dezaten. Ikasketak horiek sustatzea garatu beharreko helburutzat du.

Sustapen-lan hori gauzatzeko modu bat, dirulaguntzak ematea da, udalerrian erroldatutako pertsonak hizkuntza ezberdinak ikas ditzaten, beren maila akademikoaren eta pertsonalaren osagarri gisa.

Kulturaren eta kultur jardueren antolamendua eta sustapena, Euskadiko Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.20) artikuluan zerrendatutako udal eskumenen barruan dago.

2. artikulua: helburua

Deialdiaren helburua da dirulaguntzak ematea Arratzua-Ubarrundiako udalerrian erroldatutako pertsonari, hizkuntza ezberdinak ikas ditzaten sustatzeko.

3. artikulua: erregimen juridikoa

1. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak, oinarri hauen bidez, eta ondorengo araudian ezarritakoaren bidez arautuko dira:

- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Araudia onartzen duena.

- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

- Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra.
- Aurrekontu-exekuzioaren oinarriak.

2. Ematen diren dirulaguntzak norgehiagokadun lehiaketa bidez emango dira, deialdi irekiaren bidez, aurrekontu-kreditua agortu arte. Dirulaguntzak ondorengo printzipioen arabera emango dira:

- Publizitatea, gardentasuna, lehiaketa, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Ezarritako helburuak betetzeko efikazia.
- Baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan efizientzia.

3. Jarduera, programa, proiektu edo egoera berezi baterako dirulaguntza eskaera aurkeztu izanak berak, Oinarria hauek ezagutu eta onartzea dakar. Baita Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra ere, eta baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra ere. Era berean, mota honetako dirulaguntzei ezartzen zaizkien arau guztiak onartzea ere badakar, bai zuzenak, bai menpekoak.

4. artikulua: aurrekontu-zuzkidura

Arratzua-Ubarrundiako Udalak ekitaldi bakoitzean proposatzen diren eskaerei erantzuteko nahikoa diru-kopuru esleitu du, dagokion aurrekontu-partidaren barruan. Ezingo da dirulaguntzarik eman ez bazaio dagokion aurrekontu-esleipenik egin.

5. artikulua: onuradunak

16 urtetik gorako herritar guztiak, beren ama hizkuntza ez den edozein hizkuntzatarako ikasketak egiten badituzte.

6. artikulua: eskatzaileen baldintzak

Eskatzaileek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Arratzua-Ubarrundian erroldatuta egon behar dute, gutxienez urtebete lehenagotik. Antzinatasuna eskaerak aurkezteko amaierako epea baino lehen egon behar da beteta.

- Deialdiak ezartzen duen ikasturtean zehar, hizkuntzak ikasteko zentro ofizialetan matrikulatuta egon beharko dute.

- Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta izatea, deialdiaren behin-betiko ebazpena gauzatzen den egunera arte. Kontuan hartuko dira zuzenbide publikoko diru-sarreretatik etorritako zor guztiak, zorrak edo zigorrak ez badaude atzeratuta, zatikatuta edo bertan behera utzita. Betebehar hori, adingabeen edo legearen barruko desgaitasuna dutenen zaintzaren ardura duten pertsonen ere badagokie.

7. artikulua: Diruz lagundutako ikasketak

Diruz lagungarriak izango dira edozein hizkuntza ikasteko matrikulak dakartzan gastuak, atzerritarrentzako gaztelania barne.

Kanpoan geratzen dira joan-etorrietarako gastuak, edo, barnetegien kasuan egonaldiak sortutako gastuak.

Eskatzaile bakoitzak egiten dituen ikastaro eta barnetegi beste beka eskatu ditzake. Hala ere, ikastaro bakoitzak dirulaguntza bakarra jasoko du.

8. artikulua: eskaerak

1. Eskaerak I eranskinaren eredu ofizialaren arabera aurkeztuko dira, letra larriz beteta, modu argi eta irakurgarrian. Eskaerak tutoreek sinatuko dituzte, adingabeen edo legearen arabera desgaitasunen bat dutenen kasuetan.

2. Aurkezteko epea: deialdian jasota dagoen data.

3. Aurkezteko modua:

– Aurrez aurre: udal bulegoetan, 8:00etatik 14:00etarako ordutegiaren barruan.

– Telematikoki: www.arratzua-ubarrundia.eus webguneko egoitza elektronikoaren bidez, horretarako gaituta dagoenean. Documentación que debe adjuntarse a la solicitud:

– Ikasketak egin diren zentroaren ziurtagiria. Bertan honakoak jaso behar dira: hasitako eta bukatutako ikasturtea, ikasturtearen ordu kopurua guztira, ikasleak aprobetxatutako ordu kopurua (gutxienez, ehuneko 80ko asistentzia), ikasturtearen hasierako eta bukaerako datak, eta ikasturtearen kostu osoa. Barnetegien kasuan, eskolen eta egonaldiaren gastuak bereizita aurkeztu behar dira.

– Matrikularen fotokopia, eta ordaindu izanaren ziurtagiria.

– Diru-sarrera.

– Diru-sarrera egin beharreko kontuaren erakundea eta IBANa. Titularra dirulaguntzaren onuraduna ez bada, hala dela adierazi behar da.

1. Eskatzaileek, eskabidea aurkezten dutenean, honakoa onartzen dute:

Eskabidearen datuak udal erroldarekin gurutzatzea, honakoa jakiteko: eskatzailea eta tutoreak, hala badagokio, Arratzua-Ubarrundia udalerrian erroldatuta daudela.

Udalaren zerga-bilketa zerbitzuekin datuak gurutzatzea, honakoa jakiteko: eskatzaileak, edo tutoreak, udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta dituzten ala ez.

9. artikulua: eskaerak aztertu eta ebaztea

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean betetzea, eta adieraziko zaio, epe hori igarota ez baditu aurkeztu, eskaera, alde zurretik dagokion ebazpena eginda, bertan behera uzten dela.

Dirulaguntzak emateko erabakia Udaltzaren Osoko Bilkurak hartuko du, Osoko Bilkuran aztertu beharreko Gaietarako Batzorde Informatiboaren proposamena aztertu ondoren.

10. artikulua: dirulaguntzen zenbatekoa

Ondorengo dirulaguntzak ezartzen dira:

– Matrikularen prezioaren ehuneko 100era arte, 200 euroko gehienezko kopuruarekin, euskara-ikasketen kasuan.

– Matrikularen prezioaren ehuneko 75era arte, 200 euroko gehienezko kopuruarekin, gainerako hizkuntzen ikasketen kasuan.

200 euroko gehienezko kopurua ez da ezarriko, egin beharreko esleipenak egin ondoren ez bada aurrekontu-partida agortzen. Kasu horretan banatu egingo da, modu proportzionalan, gainerako kopurua, baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, beti ere, matrikularen prezioaren ehuneko 100 gainditu gabe, euskara-ikasketen kasuan, edo ehuneko 75a, gainerako hizkuntzen kasuan.

Ordea, gordetako kreditua ez bada aurkeztutako eskaera guztiei aurre egiteko nahikoa, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan gutxituko da, eskaera guztiei aurre egiteko.

11. artikulua: dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira, eskatzaileak helburu bererako eskatzen duen beste edozeinekin. Hala ere, udal honek emandako dirulaguntza ezingo da inoiz izan, bera bakarrik, edo beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako bestelako dirulaguntzekin batera, jarduera gauzaten duen pertsonak egindako jardueraren kostua baino handiagoa.

12. artikulua: dirulaguntzak ordaintzea

Dirulaguntzak epe bakarrean ordainduko dira, behin ebazpena onartu ondoren, eta aurrekontu-ekitaldia bukatu baino lehen.

13. artikulua: dirulaguntzen kontrola eta zuriketa

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30 artikulua 7. atalean ezarritakoarekin bat eginez, eskola garraiorako dirulaguntzak zuritzeko, eskatzaileak edo tutoreak, dirulaguntzak eman aurretik, gastua egiaztatu beharko du, eta ez du bestelako zuriketa-agiririk aurkeztu beharko, beti ere deialdian ezarritako baldintzak bete beharko dituelarik.

2. Hala ere, onuradunak kontzeptu bererako bestelako dirulaguntza edo laguntzaren bat jasotzen badu, udalari jakinarazi beharko dio, jasotzen dituen unean bertan.

3. Laguntzak jasotzen dituztenei balizko diru-itzulketak, zigorrak edo erantzukizunak ezartzeko erregimen arautzailea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek zehaztutakoa da, eta baita Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ere.

14. artikulua: zigor erregimena

Arau-hauste eta zigor administratiboen kasuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 52 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jokatu da, eta udalaren dirulaguntza eta laguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzaren 14. artikulua arabera ere bai; ordenantza horretako 15. artikuluan ezarritakoaren arabera jarriko dira zigorrak.

15. artikulua: legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusten ez dena, udalaren dirulaguntza eta laguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzan eta dirulaguntzei buruzko lege orokorrean eta beronek garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera jokatu da.



I ERANSKINA

HIZKUNTZEN IKASKUNTZARAKO DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA

IZENA ETA ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA		NAN-AIZ-IFK	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK)		NAN-AIZ-IFK	
KOMUNIKAZIOA-JAKINARAZPENA EGITEKO DATUAK			
Kalea	Zk	Solairua	Herria
Posta-Kodea	Udalerrria	Lurraldea	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikorraren zk.	

Nori egin jakinarazpena
Nola egin jakinarazpena

Interesatua
 Posta

Ordezkaria
 Elektronikoki

AZALTZEN DUT

Arratzua-Ubarrundiako Udalak onartutako hizkuntzen ikaskuntzarako laguntzen deialdiaren berri izan dudala.

..... udalerriko ikastetxe ofizialeko mailan nagoela matrikulatuta.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, Herritarren Udal Erroldan gutxienez urtebeteko antzinasunarekin izena emanda nagoela.

Ikasturtea hasi den egunean 16 urte edo gehiago ditudala.

Ogasunarekiko eta Udalarekiko dituen zerga-betebeharrak eguneratuta dituela. Adingabeen edo tutoretzapekoen kasuan, betebeharrak hainbat jarduera ardurara izango da.

Eta adierazten dut:

Konzeptu berarengatik, beste beka edo laguntzaren baten eskaera egin dudala BAI / EZ, erakundeari zuzenduta, eta laguntza jaso dudala BAI / EZ, eta, jaso izanez gero, kopurua honakoa izan dela:

.....

ESKATZEN DUT

Kontuan izatea, aipatutako deialdiaren ebazpena egiterakoan, eta hala badagokio, diru-laguntza ematea.

ERANTSITAKO AGIRIAK

Ikastaroa egin duen zentroko ziurtagiria, honakoa adierazten duena: hasitako eta bukatutako ikastaroa, ikastaroaren ordu kopurua guztira eta ikasleak aprobetxatutako ordu kopurua (gutxienez, %80ko asistentzia), ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data eta ikastaroaren kostu osoa. Barnetegien kasuan, adierazi egin beharko dira irakaskuntza-gastuak, mantentze- eta ostatu-gastuak.

Matrikularen fotokopia, eta ordaindu izanaren ziurtagiria.

Diru sarrera egitea eskatzen den entitatearen izena eta kontuaren IBANa. Kontuaren titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada, bertan zehaztu behar da.

SINADURA ETA DATA:

	DATUEN BABESA
Arduraduna	Arratzua-Ubarrundiako Udala
Helburua	Hainbat jarduera sustatzeko dirulaguntzak ematea
Legitimazioa	Datuen tratamendua lege-betebeharrak eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen dute.
Hartzaileak	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da bestelako lagapenik egongo, legeak hala agintzen ez bada.
Eskubideak	Interesdunak bere eskubideak gauzatu ahal izango ditu Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin (Uribea kalea 12, 01520 Durana) harremanetan, arduradun gisa. Datuen kontserbazio-modua legeak agindutakoa izango da, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak lantzeko.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)

HERRI-TRADIZIOAK BERRESKURATZEKO JARDUERAK EGITEKO
DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN OINARRIAK**1. artikulua: arrazoiak**

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren ustez, beharrezkoa da garai batean errotutako hainbat herri-tradizio berreskuratzea, herritarrek gero eta ahaztuagoak baitituzte. Berreskuratze-lan hori gauzatzeko moduetako bat, udalerriko elkarte eta kontzejuei dirulaguntzak ematea da, antolatu ditzaten, eta ahanzturan erori ez daitezen.

Kulturaren eta kultur jardueren antolamendua eta sustapena, Euskadiko Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.20) artikuluan zerrendatutako udal eskumenen barruan dago.

2. artikulua: helburua

Deialdiaren helburua da dirulaguntza-deialdia arautzea, udalerriko elkarte eta kontzejuei lagundu diezaien ahanzturan erortzen ari diren herri-tradizioak berreskuratze hainbat jarduera antolatu ditzaten. Ondorengoak dira horietako batzuk: "Santa Ageda", "Eguen Zuri", "Jaiotza bizia", "Olentzero eta Mari Domingi", "Erre Pui Erre" eta "Errege-kabalgata". Jarduera horietan emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua sustatzeko helburua ere badu deialdiak.

3. artikulua: erregimen juridikoa

1. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak, oinarri hauen bidez, eta ondorengo araudian ezarritakoaren bidez arautuko dira:

- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Araudia onartzen duena.
- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.
- Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra.
- Aurrekontu-exekuzioaren oinarriak.

2. Ematen diren dirulaguntzak norgehiagokadun lehiaketa bidez emango dira, deialdi irekiaren bidez, aurrekontu-kreditua agortu arte. Dirulaguntzak ondorengo printzipioen arabera emango dira:

- Publizitatea, gardentasuna, lehiaketa, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Ezarritako helburuak betetzeko efikazia.
- Baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan efizientzia.

3. Jarduera, programa, proiektu edo egoera berezi baterako dirulaguntza eskaera aurkeztu izanak berak, Oinarria hauek ezagutu eta onartzea dakar. Baita Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra ere, eta baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra ere. Era berean, mota honetako dirulaguntzei ezartzen zaizkien arau guztiak onartzea ere badakar, bai zuzenak, bai menpekoak.

4. artikulua: aurrekontu-zuzkidura

Arratzua-Ubarrundiako Udalak ekitaldi bakoitzean proposatzen diren eskaerei erantzuteko nahikoa diru-kopuru esleituko du, dagokion aurrekontu-partidaren barruan. Ezingo da dirulaguntzarik eman ez bazaio dagokion aurrekontu-esleipenik egin.

5. artikulua: erakunde onuradunak

Udalerriko elkarteak eta kontzejuek izango dira onuradunak, dirulaguntza honen helburu diren edozein jarduera gauzatzeko badute.

6. artikulua: elkarte eta kontzeju eskatzaileen baldintzak

Elkarte eta kontzeju eskatzaileek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Elkarteen kasuan: Euskal Herriko Elkarteen Erregistro Orokorrean izena emanda egotea, eta egoitza Arratzua-Ubarrundia udalerrian izatea.
- Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta izatea, deialdiaren behin betiko ebazpena gauzatzen den egunera arte.
- Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta izatea, deialdiaren behin-betiko ebazpena gauzatzen den egunera arte. Kontuan hartuko dira zuzenbide publikoko diru-sarreretatik etorritako zor guztiak, zorrak edo zigorrak ez badaude atzeratuta, zatikatuta edo bertan behera utzita. Betebehar hori, adingabeen edo legearen barruko desgaitasuna dutenen zaintzaren ardura duten pertsonen ere badagokie.

7. artikulua: eskaerak

1. Eskaerak I eranskinaren eredu ofizialaren arabera aurkeztuko dira, letra larriz beteta, modu argi eta irakurgarri. Eskaerak tutoreek sinatuko dituzte, adingabeen edo legearen arabeko desgaitasunen bat dutenen kasuetan.

2. Aurkezteko epea: deialdian jasota dagoen data.

3. Aurkezteko modua:

- Aurrez aurre: udal bulegoetan, 8:00etatik 14:00etarako ordutegiaren barruan.
- Telematikoki: www.arratzua-ubarrundia.eus webguneko egoitza elektronikoaren bidez, horretarako gaituta dagoenean.

1. Epea: deialdia argitaratzen den unetik, jarduerari dagokion urteko azaroaren 30era arte. Jarduerak deialdiari dagokion urtearen aurreko urtean egiten badira, ez dira eskaerak onartuko.

2. Dirulaguntza-eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Proposatutako jardueraren proiektua/memoria, sinatuta.
- Jarduerarako aurreikusitako aurrekontua.
- Jasotzea aurreikusten den bestelako dirulaguntzen zerrenda.

3. Eskaera aurkezten duten eskatzaileek, honakoa onartzen dute:

- Udalaren zerga-bilketa zerbitzuekin datuak gurutzatzea, elkarte edo kontzeju eskatzaileak bere zerga-betebeharrak eguneratuta dituen ala ez jakiteko.

8. artikulua: eskaerak aztertu eta ebaztea

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean betetzea, eta adieraziko zaio, epe hori igarota ez baditu aurkeztu, eskaera, aldez aurretik dagokion ebazpena eginda, bertan behera uzten dela.

Dirulaguntzak emateko erabakia Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartuko du, Osoko Bilkuran aztertu beharreko Gaietarako Batzorde Informatiboaren proposamena aztertu ondoren.

9. artikulua: dirulaguntzen zenbatekoa

Aurreikusitako gastuaren ehuneko 90era arteko dirulaguntzak eman ahal izango dira, honako mugekin:

- Santa Ageda, Eguen Zuri, Erre pui erre: 50,00 euro.
- Olentzero eta Mari Domingi eta Erregeen Kabalgata: 300,00 euro.
- Jaiotza biziduna: 1.000,00 euro.

10. artikulua: diruz lagungarri diren gastuak

1. Santa Ageda, Eguen Zuri eta Erre Pui Erre: bertaratuei txokolatea, salda eta gaztainak emateko osagaiak.

2. Olentzero eta Mari Domingi, eta Erregeen Kabalgata: jantzien alokairua, bertaratuei txokolatea, salda, gaztainak eta gozokiak eskaintzeko osagaiak.

3. Azoka biziduna: jantzietan egindako gastuak (oihalak erostea, jantziak egitea, jantziak alokatzea), dekoratuak eraikitzeko materialak, eta ikuskizunerako beharrezkoak diren elementuak.

11. artikulua: dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira, erakunde eskatzaileak helburu bererako eskatzen duen beste edozeinekin. Hala ere, udal honek emandako dirulaguntza ezingo da inoiz izan, bera bakarrik, edo beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako bestelako dirulaguntzekin batera, jarduera gauzatzen duen pertsonak egindako jardueraren kostua baino handiagoa.

12. artikulua: dirulaguntzen zuriketa eta ordainketa

Dirulaguntza jarduera egin ondoren ordainduko da. Horretarako, emandak dirulaguntza ordaintzeko eskaera egin beharko du elkarte edo kontzeju eskatzaileak.

Ordainketa-eskaera udalak onartutako ereduaren arabera egingo da, eta ondorengo dokumentazioa gehituko zaio:

– Egindako jardueraren memoria, arduradunak sinatuta. Bertan zehaztu beharko jarduera zein izan den, emandako dirulaguntza, jarduera egin den data eta parte-hartzaileen eta onuradunen kopurua, bi horiek ezberdinak baldin badira.

– Jasotako beste dirulaguntzen ebazpenak.

– Egindako jardueraren argazkiak edo grabazioak.

– Jardueran egindako gastu eta diru-sarreraren zerrenda, arduradunak sinatuta.

– Onuradunaren izenean jaulkitako jatorrizko fakturak. Horiekin, jasotako dirulaguntzaren kopuru bereko edo handiagoko gastuak egin izana ziurtatuko da. Fakturretan argi azaldu beharko da kontzeptua eta dagokion BEZa. Faktura horiek ordaindu izanaren ziurtagiriak ere aurkeztu behar dira.

13. artikulua: laguntzen kontrola

1. Erakudne onuradunak kontzeptu bererako bestelako dirulaguntza edo laguntzaren bat jasotzen badu, udalari jakinarazi beharko dio, jasotzen dituen unean bertan.

2. Laguntzak jasotzen dituztenei balizko diru-itzulketak, zigorrak edo erantzukizunak ezartzeko erregimen arautzailea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek zehaztutakoa da, eta baita Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ere.

14. artikulua: zigor-erregimena

Arau-hauste eta zigor administratiboen kasuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 52 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jokatu da, eta udalaren dirulaguntza eta laguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzaren 14. artikuluan arabera ere bai; ordenantza horretako 15. artikuluan ezarritakoaren arabera jarriko dira zigorrak.

15. artikulua: legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusten ez dena, udalaren dirulaguntza eta laguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzan eta dirulaguntzei buruzko lege orokorrean eta beronek garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera jokatu da.



I ERANSKINA

HERRI-TRADIZIOAK BERRESKURATZEKO DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA

...../ ELKARTEA EDO KONTZEJUA	 /IFK	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK)		NAN-AIZ-IFK	
KOMUNIKAZIOA-JAKINARAZPENA EGITEKO DATUAK			
Kalea	Zk	Solairua	Herria
Posta-Kodea	Udalerría	Lurraldea	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikorraren zk.	

Nori egin jakinarazpena

 Erakunde interesduna Ordezkaría

Nola egin jakinarazpena

 Posta Elektronikoki

AZALTZEN DUT

Herri-tradizioak berreskuratzeko jarduerak egiteko, udalak onartutako diru-laguntza deialdiaren berri duela

..... jarduera, datan, herrian egitea duela aurreikusita.

Ogasunarekiko eta Udalarekiko dituen zerga-betebeharrak eguneratuta dituela. Adingabeen edo tutoretzapekoen kasuan, betebeharrak hau tutoreen ardura izango da.

EAEko elkarten erregistroan izena emanda dagoela, eta Arratzua-Ubarrundiako udalerrian duela egoitza (elkarten kasuan bakarrik)

ESKATZEN DU

Egindako jarduerari dagokion diru-laguntza jasotzea.

ERANTSITAKO AGIRIAK / DOCUMENTACIÓN APORTADA

- Aurkeztutako jardueraren Proiektua / Memoria.
- Jarduerarako aurreikusitako aurrekontua.
- Jasotzea aurreikusten den beste dirulaguntzen zerrenda.

SINADURA ETA DATA:

	DATUEN BABESA
Arduraduna	Arratzua-Ubarrundiako Udala
Helburua	Hainbat jarduera sustatzeko dirulaguntzak ematea
Legitimazioa	Datuen tratamendua lege-betebeharrek eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen dute.
Hartzaileak	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da bestelako lagapenik egongo, legeak hala agintzen ez badu.
Eskubideak	Interesdunak bere eskubideak gauzatu ahal izango ditu Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin (Uribea kalea 12, 01520 Durana) harremanetan, arduradun gisa. Datuen kontserbazio-modua legeak agindutakoa izango da, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak lantzeko.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)



II ERANSKINA

**HERRI-TRADIZIOAK BERRESKURATZEKO DIRU-LAGUNTZA ORDAINTEZKO
ESKABIDEA**

...../ ELKARTEA EDO KONTZEJUA	 /IFK	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK)		NAN-AIZ-IFK	
KOMUNIKAZIOA-JAKINARAZPENA EGITEKO DATUAK			
Kalea	Zk	Solairua	Herria
Posta-Kodea	Udalerria	Lurraldea	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikorraren zk.	

Nori egin jakinarazpena

 Erakunde interesduna Ordezkarria

Nola egin jakinarazpena

 Posta Elektronikoki**AZALTZEN DU**

..... jarduera herrian datan egin dela, eta jarduera horretarako, datadun saioan, dirulaguntza eman zitzaiola. Udalarekiko dituen zerga-betebeharrak eguneratuta dituela.

ESKATZEN DU

Jasotako dirulaguntza ordaintzea

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA

- Egindako jardueraren memoria, diruz lagundutako jardueraren arduradunak sinatua. Bertan zehaztu behar da: jarduera egin den data, parte hartu duen eta jardueraren onuraduna den lagun kopurua.
- Bestelako dirulaguntzaren bat jaso bada, ebazpena.
- Egindako jardueraren argazkiak edo grabazioak.
- Jardueraren gastuen eta sarreraren zerrenda, arduradunak sinatua.
- Onuradunaren izenean jaulkitako jatorrizko fakturak, emandako diru-kopuruaren zenbateko bera edo handiagoa duten gastuei dagozkienak. Bertan, argi eta garbi jaso beharko da fakturaren kontzeptua eta BEZa. Era berean, fakturen ordainagiriak aurkeztu behar dira.

SINADURA ETA DATA:

	DATUEN BABESA
<i>Arduraduna</i>	Arratzua-Ubarrundiako Udala
<i>Helburua</i>	Hainbat jarduera sustatzeko dirulaguntzak ematea
<i>Legitimazioa</i>	Datuen tratamendua lege-betebeharrek eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen dute.
<i>Hartzailak</i>	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da bestelako lagapenik egongo, legeak hala agintzen ez badu.
<i>Eskubideak</i>	Interesdunak bere eskubideak gauzatu ahal izango ditu Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin (Uribea kalea 12, 01520 Durana) harremanetan, arduradun gisa. Datuen kontserbazio-modua legeak agindutakoa izango da, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak lantzeko.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)

MUSIKA, ARTE DRAMATIKO ETA DANTZA IKASKETAK
EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK**1. artikulua: arrazoia**

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren ustez, musikaren, arte dramatikoaren eta dantzaren irakaskuntzak garrantzia berezia du pertsonen formazioan, eta baita herritarren kultura tradizionalaren esparruan ere. Beren sustapena garatu beharreko helburutzat du. Sustapen hori egiteko moduetako bat, Arratzua-Ubarrundian erroldatuta dauden herritarrei aipatutako hiru arteen ikasketak egiteko dirulaguntzak ematea da.

Kulturaren eta kultur jardueren antolamendua eta sustapena, Euskadiko Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.20) artikuluan zerrendatutako udal eskumenen barruan dago.

2. artikulua: helburua

Deialdiaren helburua da dirulaguntzak ematea, Arratzua-Ubarrundia udalerrian erroldatutako herritarrei, ikasketa zentro ofizialetan honako ikasketak egiten badituzte: musika, arte dramatikoa eta dantza. Jarduerak egiterakoan emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua sustatzeko helburua ere badu.

3. artikulua: erregimen juridikoa

1. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak, oinarri hauen bidez, eta ondorengo araudian ezarritakoaren bidez arautuko dira:

- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Araudia onartzen duena.
- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.
- Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra.
- Aurrekontu-exekuzioaren oinarriak.

2. Ematen diren dirulaguntzak norgehiagokadun lehiaketa bidez emango dira, deialdi irekiaren bidez, aurrekontu-kreditua agortu arte. Dirulaguntzak ondorengo printzipioen arabera emango dira:

- Publizitatea, gardentasuna, lehiaketa, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Ezarritako helburuak betetzeko efikazia.
- Baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan efizientzia.

3. Jarduera, programa, proiektu edo egoera berezi baterako dirulaguntza eskaera aurkeztu izanak berak, Oinarria hauek ezagutu eta onartzea dakar. Baita Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra ere, eta baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra ere. Era berean, mota honetako dirulaguntzei ezartzen zaizkien arau guztiak onartzea ere badakar, bai zuzenak, bai menpekoak.

4. artikulua: aurrekontu-zuzkidura

Arratzua-Ubarrundiako Udalak ekitaldi bakoitzean proposatzen diren eskaerei erantzuteko nahikoa diru-kopuru esleitu du, dagokion aurrekontu-partidaren barruan. Ezingo da dirulaguntzarik eman ez bazaio dagokion aurrekontu-esleipenik egin.

5. artikulua: onuradunak

Onuradunak, ikasketa zentro ofizialetan musika, arte dramatiko eta dantza ikasketak egiten dituztenak izango dira.

6. artikulua: eskatzaileen baldintzak

Eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Arratzua-Ubarrundian erroldatuta egon behar dute, gutxienez urtebete lehenagotik. Antzinasuna eskaerak aurkezteko amaierako epea baino lehen egon behar da beteta.

- Musika, arte dramatiko eta dantza ikasketak egiteko zentro ofizialetan matrikulatuta egon behar dute, deialdiak ezartzen duen ikasturtean zehar.

- Ezingo dute beste administrazioetatik edo pareko erakundeetatik laguntzarik jaso.

- Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta izatea, deialdiaren behin-betiko ebazpena gauzatzen den egunera arte. Kontuan hartuko dira zuzenbide publikoko diru-sarreretatik etorritako zor guztiak, zorrak edo zigorrak ez badaude atzeratuta, zatikatuta edo bertan behera utzita. Betebehar hori, adingabeen edo legearen barruko desgaitasuna dutenen zaintzaren ardura duten pertsonen ere badagokie.

7. artikulua: diruz lagundutako ikasketak

Ondorengo ikasketak dira diruz lagungarriak:

- Musika: hizkuntza musikala, instrumentua, armonia modernoa, instrumentu-taldea edo konboa eta ahots-taldea.

- Arte dramatikoa: antzezpenerako formazioa eta perfektzionamendua, antzerki-zuzendaritza ikasketak, eszenografia, luminoteknia, soinua eta jantziak, eta, azkenik, zinema-zuzendaritza.

- Dantza: dantza klasikoan eta garaikidean formazioa eta perfektzionamendua, eta koreografiaren formazio teknikoak.

8. artikulua: eskaerak

1. Eskaerak l eranskinaren eredu ofizialaren arabera aurkeztuko dira, letra larriz beteta, modu argi eta irakurgarriari. Eskaerak tutoreek sinatuko dituzte, adingabeen edo legearen araberrako desgaitasunen bat dutenen kasuetan.

2. Aurkezteko epea: deialdian jasota dagoen data.

3. Aurkezteko modua:

- Aurrez aurre: udal bulegoetan, 8:00etatik 14:00etarako ordutegiaren barruan.

- Telematikoki: www.artzua-ubarrundia.eus webguneko egoitza elektronikoaren bidez, horretarako gaituta dagoenean.

4. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Ikasketak egin diren zentroaren ziurtagiria, bertan jasota: hasitako ikasturtea eta bukatutakoa, ikasturtearen ordu kopuru osoa, eta ikasleak aprobetxatutako ordu-kopurua guztira (gutxienez ehuneko 80ko asistentzia), ikasturtearen hasiera eta amaiera datak eta ikasturtearen kostu osoa.

- Egindako ikasketen kostu efektiboaren ordainagiria.

- Diru-sarrera egin beharreko kontuaren erakundea eta IBANa. Titularra dirulaguntzaren onuraduna ez bada, hala dela adierazi behar da.

1. Eskatzaileek, eskabidea aurkezten dutenean, honakoa onartzen dute:

Eskabidearen datuak udal erroldarekin gurutzatzea, honakoa jakiteko: eskatzailea eta tutoreak, hala badagokie, Arratzua-Ubarrundia udalerrian erroldatuta daudela.

Udalaren zerga-bilketa zerbitzuekin datuak gurutzatzea, honakoa jakiteko: eskatzaileak, edo tutoreak, udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta dituzten ala ez.

9. artikulua: eskaerak aztertu eta ebaztea

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, eskatzaileari eskatuko zaió 10 eguneko epean betetzea, eta adieraziko zaió, epe hori igarota ez baditu aurkeztu, eskaera, alde zurretik dagokion ebazpena eginda, bertan behera uzten dela.

Dirulaguntzak emateko erabakia Udaltzaren Osoko Bilkurak hartuko du, Osoko Bilkuran aztertu beharreko Gaietarako Batzorde Informatiboaren proposamena aztertu ondoren.

10. artikulua: dirulaguntzen zenbatekoa

Ikasturte ezberdinen matrikularen prezioaren ehuneko 75, eta gehienez ere 200 euro.

200 euroko gehienezko kopurua ez da ezarriko, egin beharreko esleipenak egin ondoren ez bada aurrekontu-partida agortzen. Kasu horretan banatu egingo da, modu proportzionalan, gainerako kopurua, baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, beti ere, matrikularen prezioaren ehuneko 75 gainditu gabe.

Ordea, gordetako kreditua ez bada aurkeztutako eskaera guztiei aurre egiteko nahikoa, kirol materialerako dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan gutxituko da, eskaera guztiei aurre egiteko.

11. artikulua: dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira, eskatzaileak helburu bererako eskatzen duen beste edozeinekin. Hala ere, udal honek emandako dirulaguntza ezingo da inoiz izan, bera bakarrik, edo beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako bestelako dirulaguntzekin batera, jarduera gauzatzen duen pertsonak egindako jardueraren kostua baino handiagoa.

12. artikulua: dirulaguntzak ordaintzea

Dirulaguntzak epe bakarrean ordainduko dira, behin ebazpena onartu ondoren, eta aurrekontu-ekitaldia bukatu baino lehen.

13. artikulua: dirulaguntzen zuriaketa eta kontrola

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30 artikuluan 7. atalean ezarritakoarekin bat eginez, musika, arte dramatiko eta dantza ikasketetarako dirulaguntzak zuriaketa, eskatzaileak edo tutoreak, dirulaguntzak eman aurretik, gastua egiaztatu beharko du, eta ez du bestelako zuriaketa-agiririk aurkeztu beharko, beti ere deialdian ezarritako baldintzak bete beharko dituelarik.

2. Laguntzak jasotzen dituztenei balizko diru-itzulketak, zigorrak edo erantzukizunak ezartzeko erregimen arautzailea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak zehaztutakoa da, eta baita Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ere.

14. artikulua: zigor-erregimena

Arau-hauste eta zigor administratiboen kasuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 52 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jokatu da, eta udalaren dirulaguntza eta laguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzaren 14. artikuluan arabera ere bai; ordenantza horretako 15. artikuluan ezarritakoaren arabera jarriko dira zigorrak.

15. artikulua: legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusten ez dena, udalaren dirulaguntza eta laguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzan eta dirulaguntzei buruzko lege orokorrean eta beronek garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera jokatu da.



I ERANSKINA

MUSIKA, ARTE DRAMATIKO EDO DANTZA IKASKETAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA
ESKABIDEA

IZENA ETA ABIZENAK EDO SOZIALATEAREN IZENA		NAN-AIZ-IFK	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK)		NAN-AIZ-IFK	
KOMUNIKAZIOA-JAKINARAZPENA EGITEKO DATUAK			
Kalea	Zk	Solairua	Herria
Posta-Kodea	Udalerrri	Lurralde	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikorraren zk.	

Nori egin jakinarazpena

 Interesatua Ordezkarria

Nola egin jakinarazpena

 Posta Elektronikoki

AZALTZEN DUT/ EXPONE

Arratzua-Ubarrundiako Udalak onartutako musika, arte dramatikoa eta dantza ikasketetarako laguntzen deialdiaren berri izan dudala.

.....udalerriko Ikastetxe ofizialeko mailan nagoela matrikulatuta.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, Herritarren Udal Erroldan gutxienez urtebeteko aintzinasunarekin izena emanda nagoela.

Ogasunarekiko eta Udalarekiko dituen zerga-betebeharrak eguneratuta dituela. Adingabeen edo tutoretzapekoen kasuan, betebeharrak hau tutoreen ardura izango da.

EZ duela beste administrazio edo erakunderen batetik, helburu bererako laguntzarik jasotzen.

ESKATZEN DU /SOLICITA

Kontuan izatea, aipatutako deialdiaren ebazpena egiterakoan, eta hala badagokio, diru-laguntza ematea.

ERANTSITAKO AGIRIAK / DOCUMENTACIÓN APORTADA

Ikasketak egin dituen zentroaren ziurtagiria, bertan jasota: hasitako eta bukatutako ikasturtea, ikasturtearen ordu-kopurua guztira, eta ikasleak aprobetxatutako ordu kopurua (asistentziaren ehuneko 80, gutxienez), ikasturtearen hasiera- eta bukaera-datak, eta ikasturtearen kostu osoa.

Egindako ikasketen kostua ordaindu izanaren ziurtagiriak

Diru sarrera egitea eskatzen den entitatearen izena eta kontuaren IBANa. Kontuaren titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada, bertan zehaztu behar da.

DATA ETA SINADURA:

	DATUEN BABESA
Arduraduna	Arratzua-Ubarrundiako Udala
Helburua	Hainbat jarduerara sustatzeko dirulaguntzak ematea
Legitimazioa	Datuen tratamendua lege-betebeharrek eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen dute.
Hartzaileak	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da bestelako lagapenik egongo, legeak hala agintzen ez badu.
Eskubideak	Interesdunak bere eskubideak gauzatu ahal izango ditu Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin (Uribea kalea 12, 01520 Durana) harremanetan, arduradun gisa. Datuen kontserbazio-modua legeak agindutakoa izango da, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak lantzeko.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)

ESKOLA GARRAIORAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. artikulua:

Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 14.4 artikulua honakoa ezartzen du: tokiko erakundeek aukera dutela edozein motatako jarduera edo zerbitzua emateko, tokiko komunitatearen interesekoa bada, eta eskumen propioen, transferituen edo ordezkaritza bidez emandakoan barruan ez badago; beti ere, ez bada bikoizketa kasurik ematen, eta erakunde osoaren ogasunaren jasagarritasun finantzarioa ez bada arriskuan jartzen.

Udal honek beharrezkoa jotzen du udalerrian erroldatutako pertsonak derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketak, goi-mailako hezkuntza-zentroak dituzten udalerrietan bizi diren pertsonen baldintza berberetan egiteko aukera izatea.

2. artikulua: helburua

Dirulaguntzaren helburua da udalerrian erroldatutako pertsonak derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketak egitea sustatzea.

3. artikulua: erregimen juridikoa

1. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak, oinarri hauen bidez, eta ondorengo araudian ezarritakoaren bidez arautuko dira:

- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Araudia onartzen duena.
- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.
- Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra.
- Aurrekontu-exekuzioaren oinarriak.

2. Ematen diren dirulaguntzak norgehiagokadun lehiaketa bidez emango dira, deialdi irekiaren bidez, aurrekontu-kreditua agortu arte. Dirulaguntzak ondorengo printzipioen arabera emango dira:

- Publizitatea, gardentasuna, lehiaketa, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Ezarritako helburuak betetzeko efikazia.
- Baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan efizientzia.

3. Jarduera, programa, proiektu edo egoera berezi baterako dirulaguntza eskaera aurkeztu izanak berak, Oinarria hauek ezagutu eta onartzea dakar. Baita Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra ere, eta baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra ere. Era berean, mota honetako dirulaguntzei ezartzen zaizkien arau guztiak onartzea ere badakar, bai zuzenak, bai menpekoak.

4. artikulua. Aurrekontu zuzkidura

Arratzua-Ubarrundiako Udalak ekitaldi bakoitzean proposatzen diren eskaerei erantzuteko nahikoa diru-kopuru esleituko du, dagokion aurrekontu-partidaren barruan. Ezingo da dirulaguntzarik eman ez bazaio dagokion aurrekontu-esleipenik egin.

5. artikulua: hartzaileak

Onuradunak izan daitezke udalerrian erroldatuta dauden pertsonak, zentro ofizialetan derri-gorrezkoa ez den ikasketak egiten dituztenak.

6. artikulua: Eskatzaileen baldintzak

Eskatzaileek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Arratzua-Ubarrundian erroldatuta egon behar dute, gutxienez urtebete lehenagotik. Antzinatasuna eskaerak aurkezteko amaierako epea baino lehen egon behar da beteta.

- Diruz laguntzen den ikasturtearen hasierako datan 27 urte baino gehiago ez izatea.

- DBHtik gorako ikasketak egitea, zentro ofizial publiko edo pribatu batean.

- Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta izatea, deialdiaren behin-betiko ebazpena gauzatzen den egunera arte. Kontuan hartuko dira zuzenbide publikoko diru-sarreretatik etorritako zor guztiak, zorrak edo zigorrak ez badaude atzeratuta, zatikatuta edo bertan behera utzita. Betebehar hori, adingabeen edo legearen barruko desgaitasuna dutenen zaintzaren ardura duten pertsoneri ere badagokie.

7. artikulua: Diruz lagundutako ikasketak

Garraioa diruz lagunduko da, ondorengo ikasketak egiteko erabiltzen den kasuetan:

- Batxilergoa.

- Erdi mailako Lanbide Heziketa.

- Goi mailako heziketa:

- Unibertsitate-ikasketak.

- Goi-mailako arte ikasketak.

- Goi mailako arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionalak.

- Goi mailako Lanbide Heziketa.

- Goi mailako kirol ikasketak.

Kanpoan geratzen dira hizkuntza eskoletan egindako hizkuntza-ikasketak. Filologia-ikasketak soilik lagunduko dira diruz.

Era berean, kanpoan geratzen dira urrutiko ikasketak.

8. artikulua: Eskaerak eta dokumentazioa

1. Eskaerak I eranskinaren eredu ofizialaren arabera aurkeztuko dira, letra larriz beteta, modu argi eta irakurgarrian. Eskaerak tutoreek sinatuko dituzte, adingabeen edo legearen arabeko desgaitasunen bat dutenen kasuetan.

2. Aurkezteko epea: deialdian jasota dagoen data.

3. Aurkezteko modua:

- Aurrez aurre: udal bulegoetan, 8:00etatik 14:00etarako ordutegiaren barruan.

- Telematikoki: www.artzua-ubarrundia.eus webguneko egoitza elektronikoaren bidez, horretarako gaituta dagoenean.

4. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Araba barruko ikasketen kasuan:

- Ikastetxeko matrikularen fotokopia, ikasketak gauzatzen ari direla jasotzen duena, eta matrikula ordaindu izanaren agiria.

- Diruz lagundutako ikasturteko eskolen ordutegia.
- Diru-sarrera egin beharreko kontuaren erakundea eta IBANa. Titularra dirulaguntzaren onuraduna ez bada, hala dela adierazi behar da.
 - Arabatik kanporako ikasketen kasuan:
- Ikastetxeko matrikularen fotokopia, ikasketak gauzatzen ari direla jasotzen duena, eta matrikula ordaindu izanaren agiria.
- Diruz lagundutako ikasturtearen urteko eskola-egutegia.
- Eskatzaileak sinatutako zerrenda. Bertan jaso behar dira garraio publikoa erabilia egin-dako joan-etorriak, egunak eta ibilbideak zehaztuta, eta egindako gastuen ziurtagiriak gehituta (fakturak, txartelak, etab.)
- Zinpeko adierazpena, joan-etorriak auto partikularrean egiten badira bakarrik.
- Diru-sarrera egin beharreko kontuaren erakundea eta IBANa. Titularra dirulaguntzaren onuraduna ez bada, hala dela adierazi behar da.

9. artikulua: eskabideen azterketa eta ebazpena

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean betetzea, eta adieraziko zaio, epe hori igarota ez baditu aurkeztu, eskaera, alde aurretik dagokion ebazpena eginda, bertan behera uzten dela.

Dirulaguntzak emateko erabakia Udaltzaren Osoko Bilkurak hartuko du, Osoko Bilkuran aztertu beharreko Gaietarako Batzorde Informatiboaren proposamena aztertu ondoren.

10. artikulua: Dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzek inoiz ezingo dute egindako gastuaren ehuneko 90a gainditu, eta ondorengo gehienezko kopuruen arabera banatuko dira:

- Araba barruko garraioa:
 - 90 euro, eskolara goizez edo arratsaldean joaten bada.
 - 180 euro, eskolara goizez eta arratsaldean joaten bada.
 - Ordutegi mistoaren kasuan (aurreko bien nahasketa), hiruko erregela bidez kalkulatu da dagokion dirulaguntza.
- Arabatik kanporako garraioa: dirulaguntza emango da, erabilitako garraiobidearen arabera, eta kopuruak honakoak izango dira:
 - Garraio publikoa erabiltzen bada, egindako gastuaren ehuneko 90, eta gehienez ere 600 euro, garraio publikoa erabiltzen bada.
 - 150 euro, garraioa ibilgailu pribatuan egiten bada.
 - Batzuetan garraiobide publikoaren bidez eta beste batzuetan ibilgailu pribatuaren bidez egiten bada, eskatzaileak bi aukeren artean aukeratu beharko du, udalak bietako bakarria lagunduko baitu diruz.

Arabatik kanporako ikasketen kasuan, diruz lagungarriak izango dira soilik onuradunaren udalerriko bizilekuaren eta ikastetxea dagoen hiriaren arteko joan-etorriak, garraiobide-aldaketak barne. Ez dira kontuan hartuko jatorria beste kokaleku batzuetan duten joan-etorriak.

11. artikulua: beste dirulaguntza batzuekin bateragarritasuna

Deialdi honen bidez emandako dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako jasotako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin, beti ere, jasotako dirulaguntza guztien guztirako kopuruak ez baditu ondorengo kopuruak gainditzen:

— Ikasketak araban:

- Goizeko edo arratsaldeko ordutegia: 190 euro.
- Goizeko eta arratsaldekoa, edo mistoa: 380 euro.

— Ikasketak Arabatik kanpora:

- Garraio publikoaren bidez: egindako gastua.
- Ibilgailu pribatu bidez: 150 euro.

Jasotako dirulaguntzen baturak aipatutako kopuruak gainditzen baditu, dirulaguntzari gain-finantzaketaren kopurua kenduko zaio, eta onuradunak udalari itzuli beharko dio dagokion kopurua.

12. artikulua: dirulaguntzak ordaintzea

Dirulaguntzak, behin ebazpena onartu ondoren, hilabeteko epean ordainduko dira, aurrekontuaren ekitaldia bukatu baino lehen.

13. artikulua: laguntzen kontrola eta zuriketa

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30 artikulua 7. atalean ezarritakoarekin bat eginez, eskola garraiorako dirulaguntzak zuritzeko, eskatzaileak edo tutoreak, dirulaguntzak eman aurretik, gastua egiaztatu beharko du, eta ez du bestelako zuriketa-agiririk aurkeztu beharko, beti ere deialdian ezarritako baldintzak bete beharko dituelarik.

2. Hala ere, onuradunak kontzeptu bererako bestelako dirulaguntza edo laguntzaren bat jasotzen badu, udalari jakinarazi beharko dio, jasotzen dituen unean bertan.

3. Laguntzak jasotzen dituztenei balizko diru-itzulketak, zigorrak edo erantzukizunak ezartzeko erregimen arautzailea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak zehaztutakoa da, eta baita Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ere.

14. artikulua: zigor-erregimena

Arau-hauste eta zigor administratiboen kasuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 52 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jokatu da, eta udalaren dirulaguntza eta laguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzaren 14. artikulua arabera ere bai; ordenantza horretako 15. artikuluan ezarritakoaren arabera jarriko dira zigorrak.

15. artikulua: legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusten ez dena, udalaren dirulaguntza eta laguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantza eta dirulaguntzei buruzko lege orokorrean eta beronek garatzen duen araudian ezarritakoaren arabera jokatu da.



I ERANSKINA

ESKOLA-GARRAIORAKO DIRU LAGUNTZA ESKABIDEA

IZENA ETA ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA		NAN-AIZ-IFK	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK)		NAN-AIZ-IFK	
KOMUNIKAZIOA-JAKINARAZPENA EGITEKO DATUAK			
Kalea	Zk	Solairua	Herria
Posta-Kodea	Udalerrria	Lurraldea	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikorraren zk.	

Nori egin jakinarazpena
Nola egin jakinarazpena

Interesatua
 Posta

Ordezkarria
 Elektronikoki/

AZALTZEN DUT

Arratzua-Ubarrundiako Udalak onartutako eskola-garraiorako laguntzen deialdiaren berri izan dudala.
..... Udalerrriko Ikastetxeko mailan nagoela matrikulatuta.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, Herritarren Udal Erroldan gutxienez urtebeteko aintzinasunarekin izena emanda nagoela.

Diruz lagundutako ikasturtea hasten den egunean, 27 urte edo gutxiago ditudala.
Zentro ofizialean egiten ari naizen ikasketak DBH-koak baino goragoak direla.

Eta adierazten du:

Eskaera egin duela, eta jaso duela / ez duela jaso beste beka edo laguntzarik kontzeptu bererako. Jaso badu, zenbatekoa: / laguntza eman duen erakundea:

Ogasunarekiko eta Udalarekiko dituen zerga-betebeharrak eguneratuta dituela. Adingabeen edo tutoretzapekoen kasuan, betebeharrak hau tutoreen ardura izango da.

Eta adierazten dut, kontzeptu berarengatik, beste beka edo laguntzaren baten eskaera egin dudala BAI / EZ, erakundeari zuzenduta, eta laguntza jaso dudala BAI / EZ, eta, jaso izanez gero, kopurua honakoa izan dela:

ESKATZEN DUT

Kontuan izatea, aipatutako deialdiaren ebazpena egiterakoan, eta hala badagokio, diru-laguntza ematea.

ERANTSITAKO AGIRIAK

Araba barruko ikasketen kasuan:

Ikastetxeko matrikularen fotokopia

Diruz lagundutako ikasturtearen eskolen ordutegia.

Diru sarrera egitea eskatzen den entitatearen izena eta kontuaren IBANa. Kontuaren titularrak, dirulaguntzaren onuraduna ez bada, bertan zehaztu behar da.

Arabatik kanpoko ikasketen kasuan:

Ikasketak egiten ari den ikastetxeko matrikularen fotokopia, eta matrikula ordaindu izanaren agiria.

Diruz lagundutako ikasturteren urteko eskola egutegia

Garraio publikoarekin egindako joan-etorrien zerrenda, egunak eta ibilbideak zehaztuta. Egindako egindako gastuen ziurtagiriak (txartelak, fakturak...) gehitu behar dira.

Zinpeko adierazpena, auto pribatuaren egindako bidaiak badira bakarrik.

Diru sarrera egitea eskatzen den entitatearen izena eta kontuaren IBANa. Kontuaren titularrak, dirulaguntzaren onuraduna ez bada, bertan zehaztu behar da.

DATA ETA SINADURA:

	DATUEN BABESA
Arduraduna	Arratzua-Ubarrundiako Udala
Helburua	Hainbat jarduerara sustatzeko dirulaguntzak ematea
Legitimazioa	Datuen tratamendua lege-betebeharrek eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen dute.
Hartzaileak	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da bestelako lagapenik egongo, legeak hala agintzen ez badu.
Eskubideak	Interesdunak bere eskubideak gauzatu ahal izango ditu Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin (Urbea kalea 12, 01520 Durana) harremanetan, arduradun gisa. Datuen kontserbazio-modua legeak agindutakoa izango da, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuak lantzeko.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Urbea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)

KIROLARI FEDERATU EZ PROFESIONALEK KIROL JARDUERAK
EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO ONARRIAK**1. artikulua: arrazoia**

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren ustez, kirol jarduerak egiteak garrantzia handia du pertsonen formazioan, eta bere sustapena garatu beharreko helburutzat du. Sustapen hori egiteko moduetako bat, Arratzua-Ubarrundian errolatuta dauden herritarrei kirola egiteko dirulaguntzak ematea da.

Kirolaren eta kirol jardueren antolamendua eta sustapena, eta erabilera publikoko kirol ekipamenduen kudeaketa, Euskadiko Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.19) artikuluan zerrendatutako udal eskumenen barruan dago.

2. artikulua: helburua

Deialdiaren helburua da udalerrian errolatutako kirol federatu ez profesionala egiten duten norbanakoei dirulaguntzak emateko modua arautzea, herrialde, erkidego, nazio edo nazioarteko mailako lehiaketa ofizialetan parte hartu dezaten.

3. artikulua: erregimen juridikoa

1. Deialdi honetan ematen diren dirulaguntzak, oinarri hauen bidez, eta ondorengo araudian ezarritakoaren bidez arautuko dira:

- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.
- Urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Lege Orokorren Araudia onartzen duena.
- Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.
- Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra.
- Aurrekontu-exekuzioaren oinarriak.

2. Ematen diren dirulaguntzak norgehiagokadun lehiaketa bidez emango dira, deialdi irekiaren bidez, aurrekontu-kreditua agortu arte. Dirulaguntzak ondorengo printzipioen arabera emango dira:

- Publizitatea, gardentasuna, lehiaketa, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- Ezarritako helburuak betetzeko efikazia.
- Baliabide publikoak esleitu eta erabiltzerakoan efizientzia.

3. Jarduera, programa, proiektu edo egoera berezi baterako dirulaguntza eskaera aurkeztu izanak berak, Oinarria hauek ezagutu eta onartzea dakar. Baita Arratzua-Ubarrundiako Udalaren Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra ere, eta baita Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra ere. Era berean, mota honetako dirulaguntzei ezartzen zaizkien arau guztiak onartzea ere badakar, bai zuzenak, bai menpekoak.

4. artikulua: aurrekontu-zuzkidura

Arratzua-Ubarrundiako Udalak ekitaldi bakoitzean proposatzen diren eskaerei erantzuteko nahikoa diru-kopuru esleitu du, dagokion aurrekontu-partidaren barruan. Ezingo da dirulaguntzarik eman ez bazaio dagokion aurrekontu-esleipenik egin.

5. artikulua: Onuradunak

Onuradunak norbanako kirolariak izango dira, federatuak eta ez profesionalak, herrialde, erkidego, nazio edo nazioarteko mailako lehiaketa ofizialetan parte hartzen dutenak.

6. artikulua: Eskatzaileen baldintzak

Eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Arratzua-Ubarrundian errolatuta egon behar dute, gutxienez urtebete lehenagotik. Antzinasuna eskaerak aurkezteko amaierako epea baino lehen egon behar da beteta.

- Dirulaguntzaren deialdia egiten den urteari dagokion denboraldian legez federatuta egon behar dute, eta ezin dute kirolari profesionalak izan.

- Arratzua-Ubarrundiako Udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta izatea, deialdiaren behin-betiko ebazpena gauzaten den egunera arte. Kontuan hartuko dira zuzenbide publikoko diru-sarreretatik etorritako zor guztiak, zorrak edo zigorrak ez badaude atzeratuta, zatikatuta edo bertan behera utzita. Betebehar hori, adingabeen edo legearen barruko desgaitasuna dutenen zaintzaren ardura duten pertsonen ere badagokie.

7. artikulua: Diruz lagungarri diren gastuak

Diruz lagungarri izango da lehiaketetan parte hartzea, eta kirol materiala erostea, legezko aitortpena duten edozein kirol mota egiteko.

8. artikulua: Eskabideak

1. Eskaerak I eranskinaren eredu ofizialaren arabera aurkeztuko dira, letra larriz beteta, modu argi eta irakurgarri. Eskaerak tutoreek sinatuko dituzte, adingabeen edo legearen arabeko desgaitasunen bat dutenen kasuetan.

2. Aurkezteko epea: deialdian jasota dagoen data.

3. Aurkezteko modua:

- Aurrez aurre: udal bulegoetan, 8:00etatik 14:00etarako ordutegiaren barruan.

- Telematikoki: www.artzua-ubarrundia.eus webguneko egoitza elektronikoaren bidez, horretarako gaituta dagoenean.

4. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Federazioaren lizentzia.

- Dirulaguntzaren helburua den kirol materialaren gastuari dagokion jatorrizko faktura, eta ordaindu izanaren ziurtagiria. Eskura ordaindu bada, faktura jaulki duenak zigilatuta egon beharko du, eta bertan jaso beharko da eskuz ordainduta dagoela.

- Urtean zehar parte hartutako proben egutegia, ziurtagiria eta zerrenda xehetua sinatuta, eta herrialde, erkidego, nazio edo nazioarte mailakoak diren adierazita.

- Diru-sarrera egin beharreko kontuaren erakundea eta IBANa. Titularra dirulaguntzaren onuraduna ez bada, hala dela adierazi behar da.

4. Eskatzaileek, eskabidea aurkezten dutenean, honakoa onartzen dute:

Eskabidearen datuak udal errolarekin gurutzatzea, honakoa jakiteko: eskatzailea eta tutoreak, hala badagokio, Arratzua-Ubarrundia udalerrian errolatuta daudela.

Udalaren zerga-bilketa zerbitzuekin datuak gurutzatzea, honakoa jakiteko: eskatzaileak, edo tutoreak, udalarekiko zerga-betebeharrak eguneratuta dituzten ala ez.

9. artikulua: eskaeren azterketa eta ebazpena

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego, eskatzaileari eskatuko zaio 10 eguneko epean betetzea, eta adieraziko zaio, epe hori igarota ez baditu aurkeztu, eskaera, alde zuzenetik dagokion ebazpena eginda, bertan behera uzten dela.

Dirulaguntzak emateko erabakia Udalbatzaren Osoko Bilkurak hartuko du, Osoko Bilkuran aztertu beharreko Gaietarako Batzorde Informatiboaren proposamena aztertu ondoren.

10. artikulua: dirulaguntzen zenbatekoa

Ondorengo kopuruak ezartzen dira:

- Kirol materialerako: gastuaren ehuneko 50, eta gehienez ere 100 euro.
- Lehiaketetarako:
 - Herrialde mailako lehiaketak: 50 euro.
 - Herrialde mailako lehiaketak, gehi Euskadiko lehiaketak: 120 euro.
 - Herrialde mailako lehiaketak, gehi Euskadiko lehiaketak, gehi Estatu mailakoak: 200 euro.
 - Estatu mailako lehiaketak, gehi nazioartekoak: 230 euro.

Kirol materiala erosteko gehienezko 100 euroko kopurua ez da ezarriko, egin beharreko esleipenak egin ondoren ez bada aurrekontu-partida agortzen. Kasu horretan, banatu egingo da, proportzioan, geratzen den den kopurua, baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, beti ere, egindako gastuaren ehuneko 100 gainditu gabe.

Ordea, gordetako kreditua ez bada aurkeztutako eskaera guztiei aurre egiteko nahikoa, kirol materialerako dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan gutxituko da, eskaera guztiei aurre egiteko.

11. artikulua: Dirulaguntzen bateragarritasuna

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira, eskatzaileak helburu bererako eskatzen duen beste edozeinekin. Hala ere, udal honek emandako dirulaguntza ezingo da inoiz izan, bera bakarrik, edo beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako bestelako dirulaguntzekin batera, jarduera gauzatzen duen pertsonak egindako jardueraren kostua baino handiagoa.

12. artikulua: dirulaguntzak ordaintzea

Dirulaguntzak epe bakarrean ordainduko dira, behin ebazpena onartu ondoren, eta aurrekontu-ekitaldia bukatu baino lehen.

13. artikulua: laguntzen kontrola eta zuriketa

1. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30 artikulua 7. atalean ezarritakoarekin bat eginez, eskola garraiorako dirulaguntzak zuritzeko, eskatzaileak edo tutoreak, dirulaguntzak eman aurretik, gastua egiaztatu beharko du, eta ez du bestelako zuriketa-agiririk aurkeztu beharko, beti ere deialdian ezarritako baldintzak bete beharko dituelarik.

2. Hala ere, onuradunak kontzeptu bererako bestelako dirulaguntza edo laguntzaren bat jasotzen badu, udalari jakinarazi beharko dio, jasotzen dituen unean bertan.

3. Laguntzak jasotzen dituztenei balizko diru-itzulketak, zigorrak edo erantzukizunak ezartzeko erregimen arautzailea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrek zehaztutakoa da, eta baita Arratzua-Ubarrundiako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak ere.

14. artikulua: zigor-erregimena

Arau-hauste eta zigor administratiboen kasuan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 52 artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera jokatu da, eta udalaren dirulaguntza eta laguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantzaren 14. artikulua arabera ere bai; ordenantza horretako 15. artikuluan ezarritakoaren arabera jarriko dira zigorrak.

15. artikulua: legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusten ez dena, udalaren dirulaguntza eta laguntzak emateko modua arautzen duen Ordenantza eta dirulaguntzei buruzko lege orokorrean eta beronek geratzen duen araudian ezarritakoaren arabera jokatu da.



I ERANSKINA

FEDERATUTAKO KIROLARI EZ PROFESIONALEK KIROL JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA ESKABIDEA

IZENA ETA ABIZENAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA		NAN-AIZ-IFK	
ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK)		NAN-AIZ-IFK	
KOMUNIKAZIOA-JAKINARAZPENA EGITEKO DATUAK			
Kalea	Zk	Solairua	Herria
Posta-Kodea	Udalerrria	Lurraldea	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikorraren zk.	

Nori egin jakinarazpena
Nola egin jakinarazpena

Interesatua
 Posta

Ordezkarria
 Elektronikoki

AZALTZEN DUT

.....n federatuta nagoela, ez naizela kirolari profesionala eta honako kirol jardueran eman dudala izena:.....

Deialdi hau egin den garaian, Herritarren Udal Erroldan gutxienez urtebeteko aintzinasunarekin izena emanda nagoela.

Ogasunarekiko eta Udalarekiko dituen zerga-betebeharrak eguneratuta dituela. Adingabeen edo tutoretzapenaren kasuan, betebeharrak hau tutoreen ardura izango da.

Helburu honetarako beste diru-laguntzaren bat eskatu duela, ondorengo erakundeari:.....
Kopurua:..... euro.

EZ duela helburu honetarako beste diru-laguntzarik eskatu.

HONAKO A ESKATZEN DUT:

Aipatutako deialdia ebazterakoan, egindako eskaera kontuan izatea, eta, hala badagokio, dirulaguntza ematea.

ERANTSITAKO AGIRIAK

Federatu-lizentzia, egutegia, urtean zehar parte hartutako proben zerrenda zehaztua eta partehartzeen ziurtagiria. Zein mailatakoak diren zehaztu beharko da: lurraldea, Euskadi, estatua edo nazioartekoa.

Kirol-materiala erosi izanak ekarritako gastuari dagokion jatorrizko faktura, eta ordaindu izanaren agiria. Ordainketa eskura egin bada, faktura jaulkitzaileak zigilatutako behar du, eta bertan azaldu beharko da eskura ordaindu dela.

Diru sarrera egitea eskatzen den entitatearen izena eta kontuaren IBANA. Kontuaren titularra, dirulaguntzaren onuraduna ez bada, bertan zehaztu behar da.

DATA ETA SINADURA:

	DATUEN BABESA
Arduraduna	Arratzua-Ubarrundiako Udala
Helburua	Hainbat jarduera sustatzeko dirulaguntzak ematea
Legitimazioa	Datuen tratamendua lege-betebeharrak eta/edo interesdunen baimenak legitimatzen dute.
Hartzaileak	Jasotako datuak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari lagako zaizkio. Ez da bestelako lagapenik egongo, legeak hala agintzen ez badu.
Eskubideak	Interesdunen bere eskubideak gauzatu ahal izango ditu Arratzua-Ubarrundiako Udalarekin (Uribea kalea 12, 01520 Durana) harremanetan, arduradun gisa. Datuen kontserbazio-modua legeak agindutakoa izango da, datuen helburuaren arabera. Datuak ez dira erabiliko erabaki automatizatuetarako.

Arratzua-Ubarrundia Udala / Ayuntamiento de Arratzua-Ubarrundia - Uribea Kalea, 12 01520 – Durana (Araba)

Eta hala jakinarazten da, zabalkunde orokorra izan dezan.

Duranan, 2019ko maiatzaren 20an

Alkateak

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE